

#20

2025/11

ZENBAKI BEREZIA

Lezon

UDAL ALDIZKARIA —
REVISTA MUNICIPAL



DESKARGATU ETA
IRAKURRI ALDIZKARIA
ZURE MUGIKORREAN
DESCARGA Y LEE LA
REVISTA EN TU MÓVIL



Elkar
zainduz
Lezo



LEZOKO UDALA, EGOERA EKONOMIKOA BERBIDERATZEN

LEZOKO UDALAREN AZKEN 10 URTEETAKO BILAKAERA EKONOMIKOAREN ONDORIOZ, EPE ERTAINEAN BLOKEO EGOERARA IRITSI DAITEKE UDALA. HORI EKIDITEKO GAI DA UDALA, BAINA NEURRIAK HARTZEA EZINBESTEKOA DA

LEZOKO UDALAREN EGOERA EKONOMIKOAREN AZTERKETAREN GAKO NAGUSIAK, EGUNGO EGOERA ETA NEURRI NAGUSIAK

Lezoko Udal gobernu taldeak, legegintzaldi hasieratik udalaren egoera ekonomikoak eragin dituen zailtasunekin kezkatuta, Betean aholkularitza zerbitzuari diagnostikoa eta proposamenak lantzeko eskatu zion.

Azterketa horrek zailtasunak argitu eta kezkak berretsi ditu: **"joera horri eutsiz gero, 2026ko ekitaldirako emaitza operatiboa negatiboa izango dela kalkulatzen da, eta udalaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jarriko du epe ertainean"**

Aurreko bi legegintzaldietan zegoen gobernu taldeak hartutako hainbat erabakik eragin zuzena izan dute egungo egoera ekonomikoan. Egoera berbideratzeko helburuarekin egungo udal gobernuak neurri batzuk hartu ditu jada legegintzaldia hasi zenetik, baina ez dira nahikoak izan.


Lezoko Udala egoerari erantzuteko garaiz dago, baina neurri zehatzak hartu behar ditu epe motzean. Zentzu horretan, arduraz jokatu, eta ondorengo bi urteotan gastuak murrizteko eta sarrerak handitzeko neurriak hartzea erabaki du udal gobernu taldeak. Besteak beste, 2026rako zergak igotzea (KPI+2 puntu), eta udal langileen soldatak izoztea aurreikusi du.

Aldizkariko ondorengo orrietan, herritarrei begira gardentasunez jokatzeko, udalaren egoera **ekonomikoa ulertzeko oinarritzko gakoak, eta horri erantzuteko aurreikusi diren neurri zehatzak azalduko dira.**

UDALAREN EGOERA EKONOMIKOA

Egungo egoera aztertzeko azken 10 urteetako garapenari erreparatzea ezinbestekoa da, 2015-2023 bitartean hartutako erabakiek edota garatutako politika ekonomikoek ere eragina izan dutelako egungo egoerara iristeko.

Udalaren egoera ekonomikoak aldaketen beharra dauka. Hori baieztatzeko datu argigarrien artean: **2020tik udalaren gastuak %18,8 igo dira, diru-sarrerak, aldiz, %13,8 soilik igo dira.**



SARRERA ARRUNTEN ADIBIDEAK

Zuzeneko zergak (etxeko OHZ, kotxeko TMIZ...), zeharkako zergak (obren gaineko zerga), tasak (ura, estolderia...), transferentzia arruntak (Foru Aldundiko diru-laguntzak),...

GASTU ARRUNTEN ADIBIDEAK

Pertsonaleko gastuak, ondasun arruntak eta zergak (garbiketa gastuak...), transferentzia arruntak (elkarteei diru-laguntzak...),...

ZER ESAN NAHI DU HONEK?

Beteaneke eginiko azterlanetik, bost ondorio garbi ater litezke:

1

EGITURAZKO DESOREKA

Aurreko grafikoak adierazten duenez, 2020 eta 2024 bitartean sarrera eta gastu arruntak ez dira proportzio berean hazi. Horrela, 2020an 1.532.604 €-koa zen horien arteko aldea, eta 2024an 704.283 €-koa. Hori oinarri hartuta, Beteanen ondorioa argia da: egiturazko desoreka sortzen ari da, eta zuzenketa-neurrien premia beharrezkoa du udalak.

2

EPE MOTZEAN BLOKEO EGOERA ARRISKUA

Azken 10 urteetako bilakaera aldatu ezean, blokeo egoerara iritsi daiteke udala. Blokeo egoerak esan nahi duena da udalak oinarritzko gastuak estaltzeko ahalmena izatea, baina egitasmo berriei ekiteko edo inbertsioetarako baliabiderik ez izatea.

3

EPE ERTAINEAN FINANTZA-JASANGARRITASUNA JOKOAN

Erabakiak hartu eta joera aldatu ezean, epe ertainean Lezoko Udalaren finantza-jasangarritasuna egon daiteke jokoan.

4

HARTUTAKO ERABAKIAK EZ DIRA NAHIKOAK IZAN

- Zerga ordenantzetan 2024an KPlari zegokion %2,5eko igoera ezarri zen, eta 2025ean, KPlaren azpitik, %1,5koa.
- Hodakinen bilketaren tasan, Europatik datorkigun betekizunari erantzuteko, %5eko igoera 2024an eta %50ekoa 2025ean.
- Udal langileei produktibitate soldata osagarria kentzea. 79.000 € inguru suposatzen zituen urtean.

Aldiz, pertsonal gastuak 900.000 € inguru igo dira azken bost urteetan, oinarritzko zerbitzuak (garbiketa, energia, mantenua, ura, hondakinak...) ia 600.000 €, eta transferentziak (Oarsoaldea, kiroldegia eta gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak...) 300.000 €.

5

ERABAKIAK EPE MOTZEAN HARTZEKO BEHARRA

Lezoko Udala oraindik garaiz dago neurriak hartzeko, baina epe motzean hartu behar dira neurri batzuk. Udala blokeo-egoerara iristea edo finantza-jasangarritasuna jokoan egotea ekiditeko, arduraz jokatu eta berehalako erabakiak hartzea beharrezkoa da.

LEZOKO UDALAREN GASTUEN ADIBIDE BATZUK

Lezoko Udalaren 2025eko aurrekontua: 10.584.000 €

PERTSONAL GASTUAK

Lezoko Udalaren pertsonal gastuen zenbatekoa 4.109.650 €-koa da, aurrekontuaren %39 hain zuzen.

OINARRIZKO ZERBITZUAK

Lorezaintza:	200.000 €	%5
Gizarte Zerbitzuak:	238.000 €	%6
Erregaiak:	277.300 €	%7
Mantenua:	350.464 €	%9
San Marko:	366.600 €	%9
Añarbe:	463.000 €	%11
Garbiketa:	878.300 €	%22

TRANSFERENTZIAK

San Marko	97.000 €	%6
Gizarte Zerbitzuak:	178.100 €	%11
Oarsoaldeari ekarpena:	389.600 €	%24
Kiroldegia	500.464 €	
<i>Kudeaketa</i>	350.464 €	%31
<i>Lan hitzarmenaren gailurak</i>	150.000 €	

JATORRIA. NOLA IRITSI GARA HONA?

Azken 10 urteetako bilakaera baten ondorioa da egungo egoera ekonomikoa. Aldagai eta inguruabar asko hartu behar dira kontuan, baina hiru aldagai garbi eta nagusi nabarmendu behar dira:

- Aurreko bi legegintzaldietako gobernu taldeak **zerga eta tasak izozteko, eta kasu batzuetan jaisteko erabaki hartu zituen eta horrek zerga horien sarreretan beheranzko joera egotea eragin du.**

Horri gehitu behar zaio, gainera, 2015-2023 urte bitartean KPlaren igoera %18,9koa izan dela. Bestalde, Eustateko azkeneko datuen arabera (2022koa da azkeneko datu eguneratua), 2015etik 2022ra lezoarren errenta batez beste %25,8 hazi zen. Hori horrela izan arren, **ez da prezioen garestitzeari ere aurre egiteko neurririk hartu**, eta horrek eragin zuzena izan du.

2015-2022 urteetako diru-sarrerekin egindako estimazioaren arabera, soilik zerga nagusiak kontuan hartuta, urte horietako KPlari zegokion igoera aplikatu izan balitz, urte horien guztien sarrera gehigarri metatua ia 800.000 €-koa litzateke eta, 2022tik aurrera, gutxienez, 360.000 €-ko sarrera gehigarria edukiko luke urtero udalak.

- Bestalde, 2015-2023 bitarteko gobernu taldeak **pertsonal gastuan eragin nabarmena izan zuten zenbait erabaki hartu zituen.** Besteak beste:

- 2015etik aurrera, produktibitate kontzeptu gisa, langile guztiei soldata osagarria ordaintzea erabaki zen, produktibitatea neurtzeko aurrez adostutako sistemarik ez eduki arren. Neurri hori indarrean egon zen urteetan (2015-2023), batez beste, 79.000€ inguru suposatu zituen urtean.
- 2019 eta 2021 urteen artean bi erabaki esanguratsu hartu ziren, batetik, zenbait langileri soldata osagarriak ezartzea eta, bestetik, langile guztien soldata mailak igotzea. Erabaki horiek, urte horietan 740.000 € inguruko gastu metatua suposatu zuten.

- Azkenik, kontuan hartu beharreko beste aldagai bat zerbitzuen kontratuen berritzea da. Hainbat zerbitzuren kontratuak amaitu egin ziren eta udalak berriitu egin behar izan ditu legegintzaldi honetan. **Kontratu gehienak garestitu egin dira, prezio igoera orokorrarekin batera.** Adibide batzuk:

	ESKOLA GARRAIOA	LOREZAINZA	KALE GARBIKETA	ERAIKINEN GARBIKETA
Aurreko kontratua	52.067,95 €	122.488,21 €	484.191,10 €	126.445,00 €
Gaur egungoa	56.980,00 €	183.992,05 €	655.106,61 €	197.181,60 €
Aldea	4.912,05 €	61.558,84 €	170.915,51 €	70.736,60 €

PROPOSAMENAK. ZER EGIN DEZAKEGU?

Proposamenak lantzeko inguruko eta antzeko ezaugarriak dituzten herrietako zergak eta tasak aztertu dira, eta Lezokoak horiekin alderatu dira:

HERRIA	ETXEA ¹		Ura, estolderia ²	Zaborrak	TURISMOAK ⁴	
	OHZ	Plazan 70-80m ²			9-11,99 zaldi	12-13,99 zaldi
LEZO	0,213	298,83 €	135 €	144,9 €	85,3 €	152,21 €
OIARTZUN	0,1943	331,45 €	155 €	168,3 €	99,71 €	166,19 €
ERRETERIA	0,2526	400,63 €	114 €	181,48 €	86,15 €	160,06 €
PASAIA	0,2231	331,25 € (barrutien batz bestekoa)	144 €	135,25 €	89,27 €	157,23 €
USURBIL	0,2014	313,46 €	140 €	178 € ³	70,56 €	143,57 €
VILLABONA	0,282	325,36 €		147 €	86,28 €	157,63 €
MUTRIKU	0,226	314,05 €		267,01 €	83,56 €	157,96 €

¹ Lehenengo zutabean OHZri dagokion karga-tasa. Bigarrenean herri bakoitzeko plazan neurri bereko etxe batek ordaindu beharrekoa.

² Añarbek etxe bakoitzak ordaindu beharrekoaren gainean eginiko estimazioa.

³ Kuota finkoaz gain, aldakorra ere badutenez, Betean-ek eginiko estimazioa (2023koa)

⁴ Turismoek zaldi fiskalen arabera ordaindu behar duten tasa. 9-11,99 eta 12-13,99 zaldi fiskal tartean kokatzen dira Lezoko auto gehienak.

Hauek dira udal gobernu taldeak proposatzen dituen neurriak eta urratsak:

- 2026ko zerga ordenantzetan **KPI + 2 puntuko (guztira %5) igoera egitea**, zerga eta tasetatik sarrera gehigarriak eskuratzeko. Egindako kalkuluen arabera, horrek 155.000 € inguruko sarrera gehigarriak ekarriko dizkio udalari. Igoera horrek, lezoarrei, gutxi gorabehera etxe bakoitzeko 35-45 €-ko igoera ekarriko diola estimatu du.
- Udal gobernu taldeak argi du ezin dela lezoarron bizkar utzi konponbiderako neurrien pisua, eta udalean ere urratsak egitea beharrezkoa da. Hortaz, **2026ra begira, udal langileen soldatak izoztea aurreikusi du**. Neurri horrek 80.000 € inguruko aurrezkoa eragingo du.
- Bide beretik, udalean gertatu diren erretiroak eta langile aldaketak baliatuz, soldata handieneko lanpostuetan ezarriak zituzten **soldata osagarriak kentzeko eta euren soldata maila apaltzeko erabakiak hartu ditu**. Horrek 36.000 € baino gehiagoko gastua zekarren, eta horrela gastu osagarri horiek saihestu dira.
- Horrekin batera, ondorengo bi urteotan **udal zerbitzuen berrazterketa egin, eta horien optimizazioa bilatuz, aurrezteko aukerak ere landuko ditu**.
- Hori guztia ordenatzeko, **2026-2027 urteetarako plan ekonomiko-finantzarioa** egitea aurreikusi du.
- Udalak behar gehien duten herritarrei laguntzak eta onura ekonomikoak eskaintzen dizkie hobari bidez, hau da, zergak ordaintzeko orduan, zerga batzuk murriztu egiten ditu. Udalak herritar guztiei ezin die berdina eskatu, eta behar gehien zein egoera zaurgarriena dutenei lagundu behar die. Norabide horretan, **iaz indarrean jarritako hobariak errenta maila handiagoei eskainiko zaizkie**. Aldi berean, alokairuan bizi direla eta (erreziboen titularrak ez direnez ezin dute hobarik jaso) hobariak jaso ezin dituzten errenta baxueneko herritarrentzat laguntza berriak eskaintzeko aukera landuko du.

LEZOKO UDALAK ESKAINTZEN DITUEN ERRENTA MAILAREN ARABERAKO ONURA EKONOMIKOAK

Hobariak tasa edo zerga bidezko oinarrizko zerbitzuak jasotzeagatik ordaindu beharreko kuotetan aplikatzen diren onura ekonomikoak dira. **Lezoko Udalak araudi orokorrak aukera ematen duen zerga eta tasetan, errenta mailaren arabera hobariak eskaintzen dizkie herritarrei. Helburua familia edo pertsona bakoitzak, bere diru eta ondare mailaren arabera, zergak proportzionalki ordaintzea da.**

Etxebizitza bakoitzak egin dezake eskaera eta, kide kopuruaren eta diru-sarreraren arabera, %10etik %90eko hobariak eskura ditzake. Hobariak hainbat zerbitzutan aplikatzen dira: hondakinak, ura, estolderia, etxeko zerga (OHZ) familia ugarien kasuan, ludoteka, udalekuak.

Hobariak urte hasieran eskatu behar dira urte horretan bertan aplikagarriak izateko, eta Herritarren Arreta Zerbitzuaren bulegoan eska daitezke aurrez aurre edo telematikoki Lezoko Udalaren webguneko egoitza elektronikoaren bidez.

2026 urteari begira, Lezoko Udalak hobarien taula zabalduko du. Jarraian ikus daitekeen moduan, errenta maila handiagoak biltzen ditu hobarien taulak.

Aldi berean, **alokairuan bizi** direla eta (erreziboen titularrak ez direnez ezin dute hobaririk jaso) hobariak jaso ezin dituzten errenta baxueneko herritarrentzat **laguntza berriak eskaintzeko aukera** landuko du.

		OINARRIZKO ZERBITZUEI APLIKATZEN ZAIZKIEN EHUNEKOAK: OHZ, URA, ZABORRA				
BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDE KOPURUA	FINANTZA-ONDARE MUGA	%90	%85	%75	%50	%20
1	30.717,90 €	15.359,00-16.894,85 €	16.894,86-18.430,74 €	18.430,75-19.966,64 €	19.966,65-21.502,53 €	21.502,54-23.038,43 €
2	40.957,20 €	20.479,00-22.526,46 €	22.526,47-24.574,32 €	24.574,33-26.622,18 €	26.622,19-28.670,04 €	28.670,05-30.717,90 €
3	47.100,78 €	23.550,00-25.905,43 €	25.905,44-28.260,47 €	28.260,48-30.615,51 €	30.615,52-32.970,55 €	32.970,56-35.325,59 €
4	53.244,36 €	26.622,00-29.284,40 €	29.284,41-31.946,62 €	31.946,63-34.608,83 €	34.608,84-37.271,05 €	37.271,06-39.933,27 €
5	59.387,94 €	29.694,00-32.663,37 €	32.663,38-35.632,76 €	35.632,77-38.602,16 €	38.602,16-41.571,56 €	41.571,57-44.540,96 €
6<	65.531,52 €	32.766,00-36.042,34 €	36.042,35-39.318,91 €	39.318,92-42.595,49 €	42.595,50-45.872,06 €	45.872,07-49.148,64 €
		%70	%65	%55	%35	%10
BESTE ZERBITZUEI APLIKATZEN ZAIZKIEN EHUNEKOAK: LUDOTEKA, UDALEKUAK...						

Errentaren arabera ez diren hobari ekonomikoak ere eskaintzen ditu Lezoko Udalak, besteak beste, kiroldegia, musika eskola, ibilgailuen zerga (TMIZ) edo auzokonposta egiten duten herritarrentzat. Hobari horien baldintzak ezagutzeko eta edozein zalantza argitzeko, Herritarren Arreta Zerbitzuan informazio gehiago eskura dezake interesa duen edonork.

Udal gobernu taldeak azken urteetako bilakaera ekonomikoa aztertu du Betean aholkularitza zerbitzuarekin.

Aldagai desberdinek eragin dute egungo egoera ekonomikoa. Besteak beste, aurreko bi legegintzaldietako gobernu taldeak hartutako erabakiek edota prezio igoera orokorrak. Legegintzaldi hasieratik hainbat neurri hartu ditu blokeo egoera ekiditeko, baina ez dira nahikoak izan.

Hala ere, oraindik garaiz dago epe ertainean blokeo egoerara iristea ekiditeko eta badu gaitasuna egoera berbideratzeko, horretarako erabaki batzuk berehala hartu behar ditu Lezoko Udalak eta horretan ari da lanean udal gobernu taldea.

#20

2025/11

NÚMERO ESPECIAL

Lezon

UDAL ALDIZKARIA —
REVISTA MUNICIPAL



DESKARGATU ETA
IRAKURRI ALDIZKARIA
ZURE MUGIKORREAN
DESCARGA Y LEE LA
REVISTA EN TU MÓVIL



Elkar
zainduz
Lezo



EL AYUNTAMIENTO DE LEZO, RECONDUCIENDO LA SITUACIÓN ECONÓMICA

COMO CONSECUENCIA DE LA EVOLUCIÓN ECONÓMICA DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO EN LOS 10 ÚLTIMOS AÑOS, EL AYUNTAMIENTO PUEDE LLEGAR A MEDIO PLAZO A UNA SITUACIÓN DE BLOQUEO. EL AYUNTAMIENTO ES CAPAZ DE EVITARLO, PERO ES IMPRESCINDIBLE TOMAR MEDIDAS

LAS CLAVES PRINCIPALES Y MEDIDAS PRINCIPALES DEL ANÁLISIS DE LA SITUACIÓN ECONÓMICA DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO

El equipo de gobierno municipal de Lezo, preocupado por las dificultades que ha generado la situación económica municipal desde el inicio de la legislatura, solicitó al servicio de asesoría Betean un diagnóstico y propuestas.

Este análisis aclara las dudas y confirma las preocupaciones: **"si se mantiene esta tendencia, se estima que el resultado operativo para el ejercicio 2026 será negativo y pondrá en riesgo la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento a medio plazo"**.

Varias decisiones adoptadas por el equipo de gobierno de las dos legislaturas anteriores han tenido impacto directo en la situación económica actual. Para reconducir la situación, el actual gobierno municipal ha tomado algunas medidas desde el inicio de la legislatura, pero no han sido suficientes.


El Ayuntamiento de Lezo está a tiempo de responder a la situación, pero debe tomar medidas concretas a corto plazo. En este sentido, el equipo de gobierno ha decidido actuar con responsabilidad y adoptar medidas para reducir los gastos y aumentar los ingresos en los próximos dos años. Entre ellas, subir los impuestos en 2026 (IPC + 2 puntos) y congelar los salarios municipales.

En las siguientes páginas de la revista **se expondrán las claves básicas para entender la situación del Ayuntamiento y las medidas concretas** para dar respuesta a la misma.

SITUACIÓN ECONÓMICA DEL AYUNTAMIENTO

Para analizar la situación actual es imprescindible fijarse en el desarrollo de los últimos 10 años, ya que las decisiones adoptadas o las políticas económicas desarrolladas durante el periodo 2015-2023 también han influido para llegar a la situación actual.

La situación económica del Ayuntamiento necesita cambios. El dato más ilustrativo para confirmarlo: **desde 2020 los gastos del Ayuntamiento han aumentado un 18,8%, pero los ingresos han aumentado únicamente un 13,8%.**



EJEMPLOS DE INGRESOS CORRIENTES

Impuestos directos (IBI de casa, IVTM de coche...), indirectos (impuesto de obras), tasas (agua, alcantarillado...), transferencias corrientes (subvenciones de la Diputación),...

EJEMPLOS DE GASTOS CORRIENTES

Gastos de personal, bienes corrientes e impuestos (gastos de limpieza...), transferencias corrientes (subvenciones a asociaciones...),...

¿QUÉ SIGNIFICA ESTO?

Del estudio realizado por Betean, destacan cinco conclusiones claras:

1 DESEQUILIBRIO ESTRUCTURAL

El gráfico anterior indica que entre 2020 y 2024 los ingresos y gastos corrientes no han crecido en la misma proporción. Así, en 2020 la diferencia era de 1.532.604 € y en 2024 de 704.283 €. Sobre esta base, la conclusión de Betean es clara: se está generando un desequilibrio estructural y el Ayuntamiento tiene la necesidad de medidas correctoras.

2 RIESGO DE BLOQUEO A CORTO PLAZO

Si no se redirige la evolución de los últimos 10 años, el Ayuntamiento puede llegar a la situación de bloqueo. La situación de bloqueo significa que el Ayuntamiento tenga capacidad para cubrir gastos básicos, pero que no tenga recursos para acometer nuevos proyectos o realizar inversiones.

3 EN JUEGO LA SOSTENIBILIDAD FINANCIERA A MEDIO PLAZO

Si no se toman decisiones y se modifica la tendencia, a medio plazo puede estar en juego la sostenibilidad financiera del Ayuntamiento.

4 LAS DECISIONES TOMADAS NO HAN SIDO SUFICIENTES

- En las ordenanzas fiscales se establecía una subida del 2,5% del IPC en 2024 y del 1,5% por debajo del IPC en 2025.
- En la tasa de recogida de residuos, aumento del 5% en 2024 y del 50% en 2025, para responder al requerimiento de Europa.
- Supresión del Salario Complementario de Productividad en los salarios municipales. suponía unos 79.000 € al año.

En cambio, los gastos de personal han aumentado en torno a 900.000 € en los últimos cinco años, los servicios básicos (limpieza, energía, mantenimiento, agua, residuos...) casi 600.000 €, y las transferencias (subvenciones de Oarsoaldea, polideportivo y servicios sociales...) 300.000 €.

5 NECESIDAD DE TOMAR DECISIONES A CORTO PLAZO

El Ayuntamiento está a tiempo de tomar medidas, pero algunas hay que tomarlas a corto plazo. Para evitar que el Ayuntamiento llegue a una situación de bloqueo o que esté en juego la sostenibilidad financiera, es necesario actuar con responsabilidad y tomar decisiones inmediatas.

EJEMPLOS DE GASTOS DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO

Presupuesto del Ayuntamiento de Lezo en 2025: 10.584.000 €

GASTOS DE PERSONAL

El importe de los gastos de personal del Ayuntamiento de Lezo asciende a 4.109.650 €, el 39% del presupuesto.

SERVICIOS BÁSICOS

Jardinería:	200.000 €	5%
Servicios Sociales:	238.000 €	6%
Combustible:	277.300 €	7%
Mantenimiento:	350.464 €	9%
San Marko:	366.600 €	9%
Añarbe:	463.000 €	11%
Limpieza:	878.300 €	22%

TRANSFERENCIAS

San Marko	97.000 €	6%
Servicios Sociales:	178.100 €	11%
Aportación a Oarsoaldea:	389.600 €	24%
Polideportivo	500.464 €	
Gestión	350.464 €	31%
Sobrecoste del convenio	150.000 €	

ORIGEN. ¿CÓMO HEMOS LLEGADO AQUÍ?

La situación económica actual es consecuencia de una evolución de los últimos 10 años. Hay que tener en cuenta muchas variables y circunstancias, pero hay que destacar tres variables claras y principales:

- El equipo de gobierno de las dos anteriores legislaturas tomó la decisión de **congelar y en algunos casos rebajar los impuestos y tasas, lo que ha provocado una tendencia a la baja en los ingresos de estos impuestos.**

A esto hay que añadirle que en el periodo 2015-2023 el incremento del IPC fue del 18,9%. Hay que tener en cuenta que según los últimos datos del Eustat (el último dato actualizado data de 2022), la renta media de Lezo creció un 25,8% entre 2015 y 2022. A pesar de ello, **no se han tomado medidas para hacer frente a la subida de los precios**, lo que ha tenido un efecto directo.

Según la estimación realizada con los ingresos de los años 2015-2022, sólo teniendo en cuenta los principales impuestos, si se hubiera aplicado la subida correspondiente al IPC de esos años, el ingreso adicional acumulado de todos esos años sería de casi 800.000 € y, a partir de 2022, el Ayuntamiento tendría un ingreso adicional anual de al menos 360.000 €.

- Por otro lado, el equipo de gobierno de 2015-2023 adoptó una serie de **decisiones que tuvieron un impacto significativo en el gasto de personal.** Entre otros:

- A partir de 2015, y como concepto de productividad, decidió abonar un complemento salarial a todas las personas trabajadoras, aunque no existiera un sistema de medición de la productividad previamente acordado. Durante la vigencia de esta medida (2015-2023), la media anual de gasto alcanzó los 79.000 €.
- Entre 2019 y 2021 adoptó dos decisiones: establecer complementos retributivos para algunas personas trabajadoras y elevar los niveles salariales de todos los puestos. Estas decisiones supusieron un gasto acumulado de unos 740.000 € en esos años.

- Por último, la renovación de los contratos de los servicios. **Los contratos de varios servicios quedaron extinguidos y el Ayuntamiento ha tenido que renovarlos durante esta legislatura.** La mayoría de los contratos se han encarecido, con la subida general de los precios. Algunos ejemplos:

	TRANSPORTE COLEGIO	JARDINERÍA	LIMPIEZA VIARIA	LIMPIEZA DE EDIFICIOS
Contrato anterior	52.067,95 €	122.488,21 €	484.191,10 €	126.445,00 €
Contrato actual	56.980,00 €	183.992,05 €	655.106,61 €	197.181,60 €
Diferencia	4.912,05 €	61.558,84 €	170.915,51 €	70.736,60 €

PROPUESTAS. ¿QUÉ PODEMOS HACER?

Para elaborar las propuestas se han analizado los impuestos y tasas de los pueblos de características similares y de al rededor y se han comparado los de Lezo con ellos:

MUNICIPIO	VIVIENDA ¹		Agua, alcantarillado ²	Residuos	TURISMOS ⁴	
	IBI	70-80m ² en la plaza			9-11,99 caballos	12-13,99 caballos
LEZO	0,213	298,83 €	135 €	144,9 €	85,3 €	152,21 €
OIARTZUN	0,1943	331,45 €	155 €	168,3 €	99,71 €	166,19 €
ERRETERIA	0,2526	400,63 €	114 €	181,48 €	86,15 €	160,06 €
PASAIA	0,2231	331,25 € (media de los distritos)	144 €	135,25 €	89,27 €	157,23 €
USURBIL	0,2014	313,46 €	140 €	178 € ³	70,56 €	143,57 €
VILLABONA	0,282	325,36 €		147 €	86,28 €	157,63 €
MUTRIKU	0,226	314,05 €		267,01 €	83,56 €	157,96 €

¹ Tipo de gravamen correspondiente al IBI / Importe de una casa de igual tamaño en la plaza de cada pueblo..

² Estimación de Añarbe sobre el precio a pagar por hogar

³ Además de la cuota fija, como también tienen la variable, es la estimación de Betean de 2023

⁴ Tasa que pagan los turismos por caballos fiscales. La mayoría de los turismos de Lezo se sitúan en los dos intervalos de la tabla..

Estos son los pasos y medidas que propone el equipo de gobierno:

- 1 Incremento del IPC + 2 puntos** (5% en total) en las ordenanzas fiscales de 2026 para obtener ingresos adicionales por impuestos y tasas. Según las estimaciones realizadas, esto supondrá al Ayuntamiento ingresos adicionales de unos 155.000€. Se estima que este incremento resultaría en una subida de aproximadamente 35-45€ por hogar.
- 2** El equipo de gobierno tiene claro que no se puede dejar a cargo de las y los lezoarras el peso de las medidas de solución, y también es necesario dar pasos en el Ayuntamiento. Por lo tanto, **de cara a 2026, prevé congelar los sueldos del personal del Ayuntamiento**. Esta medida supondrá un ahorro de unos 80.000 €.
- 3** Asimismo, con las jubilaciones y los cambios de plantilla que se han producido en el Ayuntamiento, **ha tomado la decisión de eliminar los complementos salariales que tenían establecidos los puestos con mayor salario y rebajar su nivel salarial**. Esto suponía un gasto superior a los 36.000€, por lo que se han evitado estos gastos adicionales.
- 4** Además, en los próximos dos años **se revisarán los servicios municipales, para optimizar los mismos** y así también se valorarán posibilidades de ahorro.
- 5** Para ordenarlo todo, **prevé elaborar un plan económico-financiero para los años 2026-2027**.
- 6** El Ayuntamiento ofrece a la ciudadanía que más lo necesita ayudas y beneficios económicos mediante las bonificaciones. El Ayuntamiento no puede exigir lo mismo a todas las personas y debe ayudar a los grupos más vulnerables. En este sentido, **las bonificaciones que se pusieron en marcha el año pasado se ofrecerán a niveles de renta más amplios**. Al mismo tiempo, se trabajará la posibilidad de ofrecer nuevas ayudas a aquellas personas con rentas más bajas que no puedan acogerse a bonificaciones por vivir de alquiler (no siendo titulares de recibos).

BENEFICIOS ECONÓMICOS QUE OFRECE EL AYUNTAMIENTO DE LEZO SEGÚN LA RENTA

Las bonificaciones son beneficios económicos que se aplican en las cuotas a pagar por la percepción de servicios básicos por tasas o impuestos. **El Ayuntamiento de Lezo ofrece a la ciudadanía bonificaciones en los impuestos y tasas que la normativa general permite, en función del nivel de renta. El objetivo es que cada familia o persona, en función de su nivel de dinero y patrimonio, tribute proporcionalmente.**

Cada vivienda puede realizar la solicitud y, en función del número de miembros y de los ingresos, puede acceder a bonificaciones del 10% al 90%. Las bonificaciones se aplican en servicios como residuos, agua, alcantarillado, impuesto de vivienda (IBI) en el caso de familias numerosas, ludoteca, colonias.

Las bonificaciones, que **deben solicitarse a principios de año** para ser aplicables ese mismo año, se pueden solicitar de forma presencial o telemática en la oficina del Servicio de Atención Ciudadana o a través de la sede electrónica de la página web del Ayuntamiento de Lezo.

Para el año 2026, el Ayuntamiento de Lezo ha ampliado la tabla de bonificaciones. Como se puede observar a continuación, la tabla de bonificaciones recoge mayores niveles de renta.

También abordará la **posibilidad de ofrecer nuevas ayudas para las personas** con renta más baja que no puedan acogerse a las bonificaciones por vivir **en alquiler** (al no ser titulares de recibos).

		PORCENTAJES APLICABLES A SERVICIOS BÁSICOS: IBI, AGUA, ALCANTARILLADO, BASURA				
MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL	LÍMITE DE PATRIMONIO FINANCIERO	90%	85%	75%	50%	20%
1	30.717,90 €	15.359,00-16.894,85 €	16.894,86-18.430,74 €	18.430,75-19.966,64 €	19.966,65-21.502,53 €	21.502,54-23.038,43 €
2	40.957,20 €	20.479,00-22.526,46 €	22.526,47-24.574,32 €	24.574,33-26.622,18 €	26.622,19-28.670,04 €	28.670,05-30.717,90 €
3	47.100,78 €	23.550,00-25.905,43 €	25.905,44-28.260,47 €	28.260,48-30.615,51 €	30.615,52-32.970,55 €	32.970,56-35.325,59 €
4	53.244,36 €	26.622,00-29.284,40 €	29.284,41-31.946,62 €	31.946,63-34.608,83 €	34.608,84-37.271,05 €	37.271,06-39.933,27 €
5	59.387,94 €	29.694,00-32.663,37 €	32.663,38-35.632,76 €	35.632,77-38.602,16 €	38.602,16-41.571,56 €	41.571,57-44.540,96 €
6<	65.531,52 €	32.766,00-36.042,34 €	36.042,35-39.318,91 €	39.318,92-42.595,49 €	42.595,50-45.872,06 €	45.872,07-49.148,64 €
		70%	65%	55%	35%	10%
		PORCENTAJES APLICABLES A OTROS SERVICIOS: LUDOTECA, COLONIAS...				

El Ayuntamiento de Lezo también ofrece bonificaciones que no son en función de la renta, como el polideportivo, la escuela de música, el impuesto de vehículos (IVTM) o el compostaje comunitario. Para conocer las condiciones de estas bonificaciones y aclarar cualquier duda, cualquier persona interesada puede obtener más información en el Servicio de Atención a la Ciudadanía.

El equipo de gobierno ha analizado la evolución económica de los últimos años con el servicio de asesoramiento Betean.

La situación económica actual es el resultado de diferentes variables. Entre otras, las decisiones del equipo de gobierno de las dos legislaturas anteriores o la subida general de precios. Desde el inicio de la legislatura ha adoptado una serie de medidas para evitar la situación de bloqueo, pero no han sido suficientes.

El Ayuntamiento de Lezo todavía está a tiempo de evitar que llegue a una situación de bloqueo y tiene capacidad para reconducir la situación, para ello debe tomar algunas decisiones de inmediato y en eso está trabajando el equipo de gobierno municipal.